

Martxoaren 29an
GARIZUMAKO 5. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako azken igandea dugu gaurkoa, datorren igandean hasiko baitugu, Erramuekin, gure fedearen ASTE NAGUSIA. Jesus, Jerusalemera gerturatzen ari da eta berarekin darama Eliza osoa, historiaren une erabakigarria: bera da Jainkoaren Semea, bizia ematera mundura etortzekoa zena.

Goazen gu ere Jesusekin. Elkar onartuz, inor gaitzetsi gabe, denean maitasuna eta bihotz ona agertuz.

Damu-otoitza

Gure fedearen misterioa ospatzera bildu gara. Eska dezagun lehenik barkamena eta onar dezagun Jainkoaren erruki berritzailea.

—Jesus Jauna, gure sufrimenduetan samintzen zaren Senidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu bizi-araziz goresia zaren Jainko-Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu heriotzatik ateratzen gaituzun Piztuera eta Bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira..

Otoitza

**Jainko gure Jauna, zure Semeak
bere bizia emateraino maite izan zuen mundua;
egizu, guk ere maitasun bera izan dezagula beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Behar dugu hitz kontsologarriak entzutea. Sarritan mugatuak, eroriak, tristetuak, hondoratuak senti gaitzke... eta behar dugu entzutea “Ni naiz piztuera eta bizia”, “nire espiritua emango dizuet eta biziko zarete”. Gaurko irakurgaiak, laguntza eta bultzada ditugu fede bidean.

Lehenengo irakurgaia (Ez 37, 12-14)

Ezekiel profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Nik irekiko ditut zuen hilobiak, ateraraziko zaituztet zuen hilobietatik eta eramango zaituztet berriro Israelgo lurrera.

Eta Nik zuen hilobiak irekitzean, eta zuen hobietatik ateratzean, ene herri, orduan ezagutko duzue, Ni naizela Jauna. Nire espiritua emango dizuet Nik, eta zuek bizi-berrituko zarete; eta zeuen lurrean, ezarriko zaituztet, eta ezagutuko duzue, Nik, Jaun Honek, esan eta egin egiten dudala» —Jaunak esana—.

Erantzun-salmoa (Sal 129, 1-2. 3-4. 5-6. 7-8)



Jau-na-gan da-go e-rru-ki-a, Ha-ren-gan as-ka-ta-sun u-ga-ri-a.



Barnenetik Zuri dagizut **oihu**, Jauna,
entzun, Jauna, nire **mintzoa**.
Beude erne zure **belarriak**,
nire oihu-eskarira. R/.

Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna,
nor dagoke zutik, Jauna?
Baina barkamena Zugan **daukazu**,
Zu begirunez zerbitza **zaitzagun**. R/.

Jaunagan itxaroten nago,
nire barrena Haren hitzaren **zain** dago.
Gaumutila goizargiaren **zain** dago:
nire gogoa Jaunaren **zain** dago. R/.

Gaumutila goizargiaren **zain** dago,
Israel Jaunaren zain **hala** bego.
Jaunagan baitago errukia, '
Harengan askatasun **ugaria**.
Berak utziko du Israel askaturik, '
egin dituen hoben guztietatik. R/.


Bigarren irakurgaia (*Erm 8, 8-11*)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei

Senideok: Haragiaren menpe aurkitzen direnak, ezin izan gogoko Jaungoikoari. Zuek, ordea, ez zarate haragiaren menpean aurkitzen, Espirituaren menpean baizik, Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi bait da.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan badago, ordea, gorputza hila dago bekatuarengatik; espiritua, berriz, bizirik zuzentasunarengatik. Jeus hilen artetik biztu zuenaren Espiritua zuengan bizi bada, Jesus hilen artetik biztu zuenak, bizieraziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere, zuengan bizi den bere Espirituaren bitartez.

Ebanjelio-aurreko gorapena (Jn 11, 25a. 26)



Ni naiz piztuera eta bizia -dio Jaunak-;
Niregan sinesten duena
ez da inoiz hilko. R/.

Ebanjelioa (Jn 11, 1-45)

Homiliarako argibideak

Zenbat maite zuen!

Gure senideen heriotzak geure bizitzaren misterioaren aurrean jartzen gaitu. Ez dugu erabakia hartu beste biderik: Jesusengan eta bizitzarengan sinetsi edota negarrean geratu banatzea eta galera betirako direlako. Lazaro adiskidea hiltzean Jesusek negar egin zuen (Jn 11, 1-45). Heriotza horrek **Jesus beraren heriotza** iragartzen du. Nola egingo dio aurre Jesusek heriotzaren eta bizitzaren dramari? Jainkoarekiko konfiantza osoz, dudarik gabe. Biziaren Jainkoa gai baita gure hilobiak irekitzeko (Ez 37, 12-14). Jesusek garbi dauka, pertsona bat maitatzea zera esatea da: “zu

niretzat ez zara inoiz hilko". Maiteenen heriotzaren aurrean sentitzen dugun ezina Jainkoaren Espirituak bizi indar bilakatzen du (*Erm* 8, 8-11).

Beranduegi iritsi zen Jesus. Lau egun zeramatzan Lazarok hilobian. Ezinezkoa zen bizitzara itzultzea eta Martak horixe aurpegiratzen dio Jesusi. Anaia piztuko dela hitz ematen dio Jesusek. Judu askok bezala, sinesten du Martak piztueran, azken eguneko piztueran. Jesusek, ordea piztueraren gaurkotasuna aldarrikatzen du Berarengan sinesten dutenentzat. Martak, horretaz jabetu eta Jesus Mesias aitortuko du fedez: Jainkoaren Seme.

Hilobira gerturatu zen Jesus, heriotzarekin aurrez-aurre jarriz, usain txarra egongo zela Martak esana zion arren. Fedea eskatzen du Jesusek berriro ere. Heriotza garaitzeko, beti entzuten dion Aitari dei egiten dio. Miraria eskatzen du, jendeak sinets dezan Bera dela bidalia. Eta heriotzaren gaineko garaipena gertatzen da Jesusek, hitz ahalguztidunez, hildakoari dei egiten dionean bizitzara itzul dadin.

Jesusen malkoak kontsolagarri dira guztiontzat, maitasun malko baitira, ezinaren eta minaren malko baino gehiago. Jesusen malkoek hauxe gogorarazten digute: «Neu naiz **piztuera eta bizia**, nigan sinesten duena hilik ere biziko da; eta nigan sinesten duena ez da betirako hilko». Biziaren Jainkoak du azkeneko hitza, heriotza garaitzen duen biziaren hitza, gorrotoa gainditzen duen barkamen hitza. Jesus hilen artetik piztuz historiaren norabidea aldatu du Jainkoak, bereziki giza sufrimenduarena. Jesusen nekaldia, Jainkoarenganako maitasun, gizakiarenganako maitasun, bizitzarekiko maitasun izan zen, azken finean. Etsaien gorrotoak ez zuen suntsitu Jesusen maitasuna, ezta bere heriotzaz Bere burua besteentzat dohain emateko gogoia ere.

Gure senide hilak fisikoki gure artean ez badaude ere, beraien presentzia gure artean egiazkoa da. Gure ondoan zeudenean baino errealagoa, behar bada, tokiaren eta denboraren mugak gaindituta dituztelako. Heriotzaren ondoren datorren bizitzaren misterioari bihotza zabaltzen badiogu, kontsolagarri gertatzen zaigu senide hildakoen zoriona. Mingarriena ez baita gure senideak hiltzea, haiek hil aurretik ere beraienganako maitasuna gudan hila egotea baizik.

«**Sinesten al duzu hori?**» galdetu zion Jesusek Martari, eta gaur guri horixe galdetzen digu. Jesus biziaren Jaun aitortzen dugun heinean guk ere izango dugu betirako bizia. Ez azken egunean Martak hasieran uste zuen bezala, orain baizik. Fededunongan dagoeneko errotuak daude piztueraren indarrak. Heriotzaren mina bizi dugun bitartean indar horiek gudan nola eragiten duten da kontua. Guk badakigu heriotzak eguneroko borrokak irabazten baditu ere, bizitzak duela azken hitza, Bizitza atera dela garaile betiko. Bizitza eta maitasuna gorrotoaren eta heriotzaren gainetik daude.

Jainkoaren herriaren otoitza

Egigun otoitz, senide maiteok, eta eska dezagun Jaunaren errukia, bere herriarekiko onginahiz beterik gure eskariak entzun ditzan:

Erantzuna: Kyrie, eleison!



Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Bere herria biziartzeko bere burua heriotzara eman zuen munduaren Salbatzaileak, Eliza gaitz guztitik libra dezan. Egigun otoitz. R/.

- Gurutziltzatu zutenen alde gurutzean otoitz egin zuen munduaren Salbatzaileak, bekatarien alde Aitaren aurrean bitarteko egin dezan. Egigun otoitz. R/.
- Gurutzean sufrimendua eta ezina pairatu zituen munduaren Salbatzaileak, sufritzen duten guztiekin erruki izanez indarra eta laguntza eman diezaien bere minetan. Egigun otoitz. R/.
- Egun hauetan Bere Gurutze-bidea gurtu eta oroitzeko prestatzen garenok, munduaren Salbatzaileak bere piztueraren garrez indaberri gaitzan. Egigun otoitz. R/.

Kristogan mundua berritu nahi duzun Jainko ongilea, ikus gure ezinak eta Zure Semea mundua salbatzera bidali zenuenez, eta ez kondentazera, entzun gure otoitzak eta sorrarazi ezazu gure bihotzetan bizi-gogoa eta alaitasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

Garizumako V. igandeak bere prefazioa du, Meza liburuko 198. orrialdean.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jainko ahalguztiduna, egizu,
orain Kristoren Gorputz Odolekin bat egin dugunez gero,
haren gorputzeko atal izan gaitzela beti.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinka ezazu, Jauna,
zure errukia itxaro duen zeure herria,
eta emaiozu bihotz zabalez Zuk argiturik eskatzen duena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

Herriaren gaineko otoitzaren ordeztan, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia (Ikus Meza-liburuan 643. or.).

Oharra

Ohartarazi datorren igandea Erramu eguna dela, Mezen ordutegia emanaz eta egun horretako diru-bilketa Caritasen beharretarako izango dela gogoraraziz.